

ASTEARTEA

2020/07/21
8. urtea, 1.276 zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82 €

Hamar positibo berri batu dituzte eskualdean asteburuan

Eskualdeko lau taberna eta jatetxe itxi dituzte bertako langileek PCR probetan positibo eman ostean; edukiera murriztu eta ordutegia mugatu du Tolosako Udalak // 2

«Talde batekin entrenatzen hasteko gogoz nago»

JOSU IBARBIA
FUTBOLARIA

Arenas taldean aritu da aurten ibartarra; hurrengo denboraldirako ez du talderik, eta Bigarren Mailara igotzeko helburua duen batean egon nahiko luke // 6



ADUNA

AGUR ASVINENEARI

Larunbatean agur festa egin zuten arte eszenikoen sorkuntza gunean, bertatik 17 urteetan igaro diren kideekin; etapa baten amaiera dela esan dute, gune berria badutelako, eta baita izen berria ere, Zirkuola Elkarte // 4

Ostegunean pasako da Sarek antolatutako bizikleta martxa

10:30ean iritsiko da Lizartzara, eta Tolosa, Anoeta eta Villabonatik igaroko da // 3

Bigarren bandera ere Tolosaldea traineruarentzat

ETE ligako sailkapeneko buru jarraitzen dute eskualdeko arraunlariek // 7

HOTEL
AIRE
DE
BARDENAS

ZOZKETA

Bi pertsonarentzat bi gaueko egonaldia Aire de Bardenas hoteleko suite batean. Gelak patio pribatua eta kanpoko bainuontzia ditu.

(Erreserba hotelean duten erabilgarritasunaren arabera izango da)



Zozketan parte hartzeko epea uztailaren 23ko 11:00k arte, 943 65 56 95 edo www.ataria.eus-en.

10 positibo eskualdean, azken asteburuan

Eskualdeko lau ostalaritza zerbitzu itxi dituzte, bertako zenbait langilek PCR probetan positibo eman ondoren; Tolosan, gainera, neurri zorrotzagoak ezarri ditu udalak

Josu Artutxa Dorronsoro

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak atzo goizean eman zuen azken asteburuan herriz herri egindako PCR probetan atzemandako positiboen berri. Pasa den ostiralean kaleratu zuen azken txostena, eta atzo, orduz geroztik herriz herri zenbatutako kasuak eman zituzten jakitera.

Eskualdean 10 herritarrek eman dute positibo ostiralaz geroztik. Tolosan 7k eta Ibarra 3k. Ostiralean egindako probetan, 5 positibo atzeman ziren Tolosan; larunbatean bat bera ere ez, eta igandean, berriz, 2. Ibarra, berriz, egun bakoitzean positibo bana zenbatu zen.

BEOTIBARREN POSITIBO BAT

Olatz Peon Tolosako alkateak ostiralean adierazi zuenez, soilik pertsona bakarrak eman zuen positibo Beotibar frontoian ezarritako gune berezian egin ziren 631 PCR probetan. «Badirudi ez dagoela transmisio komunitariorik. Oraindik ere, kasu positiboak daude herrian, eta beraz, ezinbestekoa da zuzenbidez jokatzen jarraitzea». Osakidetza, gainera, pilotalekuan kokatutako gune berezia kendu zuen.

Egoeraren jarraipen «estu-estua» egiten ari direla ere adierazi zuen Peonek, eta gaineratu zuen datozen egunetan ere, Osasun Sailarekin eta Nekane Murga jarduneko sailburuarekin «harreman zuzenean» izango direla, «egunean eguneko datuak aztertze eta bilakaera ikusteko».

ZENBAIT NEURRI BERRI

Kutsatuen soslaia aldatu egin dela azaldu zuen, pasa den astean, Murgak. «Batez ere gazteak



Beotibarren egindako 631 probetatik bakarrak eman zuen positibo. J. ARTUTXA

dira, eta kutsatze eremua, aisia». Hori dela eta, zenbait neurri iragarri zituen. Udalekuak bertan behera uzteko eskatu die udalei, eta foru aldundiei, berriz, zahar etxeetako joan-etorriak mugatzeko: egoiliarrek ezingo dute kalera atera, eta senide bakarra joan ahal izango da bisitan. Adinekoen eguneko zentroak ere itxi egin dituzte oraingoz.

Tolosaren kasuan, Ordizian hartutako antzeko neurriak jarri ditu indarrean udalak. Usabal eta Berazubi kiroldegietako gimnasioak itxi ditu, eta soilik bakar-kako kirola egin ahal da; kanpoko igerilekua ere zabalik dago Usabalen. Gazte lokalak ere itxi dira, eta Auzolandegiak mantentzea erabaki du udalak. Liburutegiko eta kultur etxeko baliabideen erabilera ere mugatu da. Bestalde, azoka mantendu egingo da, segurtasun neurri guztiekin. Azkenik, ostalaritza zerbitzuetan, %50era murriztu da edukiera, eta ordutegia 23:30era mugatu da. Ezin da barran kontsumitu, soilik eserita, bai kanpoan, baita barruan ere.

Protokolo guztiak martxan daudela nabarmenduz, lasaitasun mezua helarazi nahi izan du Peonek, eta arduraz jokatzen jarraitzeko eskatu du. Edozein kasutan, herritarrek sintomak edota zalantzak izanez gero, orain arte bezala, anbulatortara jo dezakete, 943 00 68 00 telefono zenbakira deituta.

OSTALARITZAN ERAGINA

Hain justu, eskualdeko lau ostalaritza zerbitzu, behintzat, itxi behar izan dituzte azken astean, bertako langileek positibo eman ondoren, Ibarra Danon Txokoa, Tolosako Hiru, Alegiarako bidean dagoen gasolindegiko Tolosaldea jatetxea eta Zizurkilgo Atxulondo.

Tolosako udaltzainek eman zuten Alegiako gasolindegiko kafetegi-jatetxea ixteko agindua. Gasolindegiko zerbitzua, ordea, zabalik dago. Azken egunetan sintomak dituzten bertan egon diren bezeroek dagokien anbulatortara deitu behar dute PCR proba egiteko.

Tolosako Hiru taberna ere itxita egon da, baina bertako jabeak hartu zuen erabakia, langileetako batek COVID-19an positibo eman eta gero. Asteburuan, baina, proba berriak egin ondoren, negatibo eman zuen, eta beraz, positibo «falsua» izan zen. Gainerako langileek ere egin zuten proba, eta horietan ez zen positiborik atzeman. Gaur berriro irekiko ditu ateak.

Pasa den ostiraletik Atxulondo jatetxea itxita dagoela jakinarazi du Zizurkilgo Udalak, langile batek positibo eman ondoren. Asteburuetako langileetako bat da eta ez da herrian bizi. Gainerako langileei egindako probek negatibo eman dute, baina badaezpada jatetxeak itxita jarraituko duela adierazi dute.

«Pasa den asteazkenean taberna itxi genuenetik ez gara etxetik atera»



ITXASO CALVIÑO
DANON TXOKOA
TABERNAKO JABEA

J. Artutxa Dorronsoro Ibarra

Euskal Herria kalean dagoen Danon Txokoa tabernako jabea da Itxaso Calviño ibartarra. Bertako zerbitzari batek COVID-19aren PCR proban positibo eman ondoren, taberna ixteko agindua jaso zuten asteazkenean.

Nola izan zenuten zuen lankide batek positibo eman zuten berri?

Gure tabernako zerbitzariaren bikotekidearen lankide bat ordiziarra da, eta haren bitartez kutsatu dira. Lehenik, Ordiziakoak egin zuen proba, eta positibo eman zuela jakitean, abisua pasa zidan zerbitzariak, positibo eman zuen pertsona haren gertuko batekin kontaktu zuzena zuelako. Hortaz, lanera ez etortzeko eta etxean geratzeko esan nion, prebentzio neurri modura.

Eta zein izan da azken asteotan izan duzuen prozesua?

Pasa den asteartera arte ez zien PCR probarik egin zerbitzariari. Asteazkenean eman zioten emaitza, eta orduan jakin zuen positiboa zela. Eskerrak aurrez esan geniola lanera ez etortzeko. Kutsatuta zegoela jakitean, Ibarra anbulatortara deitu nuen, zer egin jakiteko. Lankideak haren 9tik berarekin kontaktuan egon ez garenez, taberna irekita mantentzeko arazorik ez nuela esan zidaten. Hala ere, Osalantetik jakinarazi ziguten hobe zela taberna ixtea, prebentzio modura, eta bertako langileei PCR proba egitea.

Noiz itxi zenuten taberna?

Pasa den asteazkenean itxi genuen taberna, eta ostegunean eta ostiralean egin genituen probak. Larunbaterako izan genuen gainerako langileok gure proben

emaitzen berri: negatibo eman genuen guztiok. Azken egunetan medikuekin etengabeko kontaktuan egon gara.

Datozen egunetan, beraz, bazu irekitzeko asmorik?

Baliteke biharko (asteazkenearako) taberna ireki ahal izatea, gainerako lankideon osasun berme guztiekin. Hala ere, ez da ziurra. Nik nahiago dut pixka bat itxaron. Positibo eman duen zerbitzaria, esaterako, ez da lanean hasiko. Gainera, larunbatean proba berri bat egin behar du.

Zer nolako ondorioak ekar ditzake egoera honek?

Alde batetik badut beldur apur bat. Sare sozialetan babes handia jaso dugu herritarren aldetik. Hala ere, ez dakit elkartasun hori gero tabernara nola transmitituko den, hau da, izan dezaketen kezka horri nola egingo dien aurre bezeroek. Oso ezberdinak dira sarean edo telefonoz jasotzen duzun erantzuna eta gero tabernan bertan jasotzen duzuna. Nik ziurtatzen diet segurtasun neurri guztiekin eta beharrezko berme guztiekin irekiko ditugula ateak.

Taberna ixteaz gain, zein neurri hartu behar izan dituzue langileek?

Taberna itxi genuen unetik, proba egin arte, eta proba egin ondoren emaitza jakin arte, etxetik atera gabe egon gara; guztira, ia astebete. Orain arte bajaran egon gara, eta orain jaso dugu alta hartzeko baimena. Ez gara kalera atera zertarako. Gaia serioa da eta neurriak bete beharrekoak dira. Ez gara behar adina konturatzen. Neurriak aholku modura ezarritako gero, gainera, gutxiak betetzen dituzte. Jendea jabetzeko, isunak jartzea beharrezkoa izaten da. Gerrikoa estutzea egokitzen da, eta txantxetan ez hartzeko esango nioke jendea, batez ere gazteei; izan ere, batzuek ez-entzunarena egiten dute.

Beharrezkoak iruditzen zaizkizu zenbait herritan ostalariei ezarritako neurriak?

Kolpe handia suposatzen dute. Zergatik ez ginen lehen tabernan musukoarekin ibiltzen eta orain bai? Hala ere, argi adierazi nion alkateari beharrezkoa dela hemen ere Tolosako neurri berdinak ezartzea, bestela bertako jendea hona etorriko delako.

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Etxeko lanak. Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. Interesatuak deitu 688 784 412 telefonora.

Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar da. Interesatuak deitu 647 446 363 telefono zenbakira.

Sarek antolatutako bizikleta bira ostegunean iritsiko da Tolosaldera

Hirugarren urtez antolatu dute eta koronabirusaren ondorioz hiru egunera murriztu dute egitasmoa, uztailearen 23tik 25era; 'Izan bidea' dinamikaren barruan egingo da bira

Jon Miranda Tolosa

Azken bi urteetan udako bizikleta itzulia antolatu du Sarek, eta aurten ere hala egin dute. Uztailearen 23an Lekunberrin hasi, eta Hego Euskal Herriko lau espetxeetara egindako martxarekin amaituko dute hilaren 25ean.

Aurten, ordea, koronabirusaren ondorioz, zenbait neurri hartu dituzte Sarekoek; besteak beste, hiru egunera murriztu dute itzulia, eta etapak bereiziaz izango dira. Lehen egunean, Lekunberritik Hernanirako bidea egingo dute han bildutakoek; Tolosaldea zeharkatuko dute txirrindulariek: 10:30ean iritsiko dira Lizartzara, 11:00etan Tolosara, 11:15ean Anoetara eta 11:45ean Villabonara. Etapa Hernanin amaituko da. Izen emateko www.sare.eus webgunera jo beharko da eta apuntatzeko epea gaur bertan amaituko da. Antolakuntzatik jakinarazi dutenez, txaleko errelektatua eramane beharko da bizikletan ibiltzeko eta etapa amaierako ekitaldian musukoen erabilera beharrezkoa izango da.

Lehen etaparen ondoren, uztailearen 24an, Urduñatik Duran-

gora joango dira eta azken egunekoak da berritasunik handiena. Hego Euskal Herriko lau hiriburutatik abiatu, eta alboko kartzelara egingo baitute martxa: Bilbotik Basaurira, Gasteiztik Zaballara, Iruñeko kartzelara ere joango dira, eta Donostiatik Martutenera. Euskal Herrian zigorra betetzeko aukera dagoela irudikatze egingo dituzte uztailearen 25eko lau etapak.

KORONABIRUSA ESPETXEETAN

Aurtengoa bai senide eta baita preso dauden euskal herritarrentzat bereziki urte «gogorra» izaten ari dela nabarmendu du Tolosaldeko Sareko kide Jon Ugartemendiak. Euskal presoak hiru hilabetez egon dira bisitarik egin gabe COVID-19aren eraginez, eta Ugartemendiak adierazi du denbora honetan «ezjakintasuna eta ziurgabetasuna» izan direla nagusi.

«Hori nahikoa ez balitz, urruntze politikak gauzak zailago eta gogorrago bihurtu ditu», esan dute Saretik. «Orain, bisitak berreskuratu ostean, senideek berriro ere ehunka eta milaka kilometro egin behar dituzte, pandemia oraindik indarrean den



Amarotz auzoan aurreko ostiralean egin zuten ekimenaren aurkezpena Tolosaldeko Sare-ko kideek. J.M.

honetan, bizia errepidean arriskatuz. Gure eskualdeko senide eta lagunek, adibidez, batez beste 1.400 kilometrotik gora egin behar izaten dituzte astebururo», esan du Ugartemendiak. Tolosaldeko Sareren ustez, COVID-19ak are ageriagoan utzi du euskal presoak euren bizilekutik

gertu egotearen beharra. «Bada garaia behin betiko egoera honekin amaitzeko. Bada garaia presoak euskal herriratu eta hauen etxeratze prozesua gauzatzeko».

Iragan maiatzean aurkeztu zuten *Izan Bidea* ekimenaren barruan antolatu dute bizikleta itzuli hau, «preso eta iheslarien

etxerako bidea eta euskal jendar-tearen elkarbizitzarako eta bake-rako bidea egiten jarraitu nahi dugulako». Bizikleta hartu eta eskualdeko elkarretaratzeetara hurbilduz, bidea egitera animatu dituzte Tolosaldeko herritar-rak. «Jarrai dezagun guztion artean kilometroak egiten».

Elkartasun sarearen bigarren batzar irekia egingo dute bihar

Erredakzioa Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako elkartasun sareak lehen urratsa eman zuen pasa den ekainean eta orain bere jarduna definitzen hasteko biler egingo du. Bihar izango da pleno aretoan, 19:00etan. Boluntarioz osatutako sarearen helburu nagusia, auzolana eta elkartasuna ardatz hartuta, pobrezia egoeran edo bazterketa sozialaren arriskuan dauden pertsonen laguntzea izango da, beraien oinarrizko beharrak ase ditzaten.

Elkartasun sareak bere gain hartuko duen lehen zeregina,

pobrezia egoera larria bizi duten herriko pertsonentzat elikagai bilketa eta banaketa egitea izango da. Udaleko gizarte zerbitzuen sailarekin elkarlanean eta Gipuzkoako elikagai bankuarekin hitzarmena eginda, elikagaiak eskuratzeko zailtasunak dituzten familiei lagunduko zaie.

Egitasmo honetarako, udal ordezkariak proposamen bat jarri dute mahai gainean, eta biharko batzarrean eztabaidatuko da. Bestalde, udalak Gipuzkoako Elikagai Bankuarekin sinatutako hitzarmenaren ondoren, eli-

kagai bankutik Amasa-Villabonara ekarriko diren elikagaiak banatzeko protokoloa ere aurkeztuko da bileran.

Azkenik, azken aldian zabaldu diren zurrumurru eta esamesak izango dituzte hizpide bertaratutakoek. «Elikagai banaketaren inguruan, gezurrezkoak diren hainbat mezu ikusi eta entzun ahal izan dira; Horrelako meziek min handia egiten diote elkartasunean eta gizatasunean oinarritzen den ekimen honi eta zurrumurru horiei aurre egin behar zaie», esan du Amasa-Villabonako Udalak.



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Udalbatzak, 2020ko ekainaren 25ean izandako Osoko Bilkuran, honako hau erabaki zuen:

1. Hasierako onarpena ematea, 2020. urterako, ordenantza honen aldaketari: Ordenantza orokorra, zergak eta zuzenbide publikoaren bestelako sarrerak kudeatzeko eta biltzeko.
2. Hasierako onarpena ematea, 2020. urterako, ordenantza honen aldaketari: Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.
3. Hasierako onarpena ematea, 2020. urterako, ordenantza honen aldaketari: Herri jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkien tasen Ordenantza Fiskala.

Hartutako akordioak Udaletxeko iragarki taulan ageri dira 30 lanegunetan zehar, iragarki hau G.A.O.-n argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita. Epe honetan, 11/1989 Arau Foralak 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunek espedienteaz aztertu ahal izango dute eta egokitzat jo ditzaten erreklamazioak aurkeztu. Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamazioak edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik beharko.

Tolosan, 2020ko uztailearen 13an
Zinegotzi Delegatuak
Begoña Tolosa Mendia



ARANA MEDIKUA OMENDU DUTE AMAROTZ AUZOAN

Amarotz Auzo Elkarteak omenaldi xumea egin dio Javier Arana bertako medikuari. 28 urtez lanean aritu ondoren, erretiroa hartuko du hilabete barru, eta oporrak tarteko, pasaden ostegunean zen bere azken eguna auzoko kontsultan. «Sorpresa handia» hartu zuela aitortu zuen Javier Aranak Amarotz auzoan duen kontsultara heldu zenean. Auzotarrek omenaldi txiki bat egin zioten azken lan egunean. Txalo artean hartu zuten, eta ondoren agurra dantzatu zioten. Opari batekin eskertu nahi izan dute Aranak egindako lana. Bertso bat eta bere erretratu batekin atondutako koadroa oparitu zizkioten medikuari. JOSU ARTUTXA

Agur esan diote Asvineneari

Larunbatean egin zuten Asvinenean agur festa; etapa bat amaitu da, baina beste baten hasiera dela esan dute

Asier Imaz Aduna

Haur nahiz heldu; proiektua martxan jarri zutenak eta agurreko unean zeudenak; beste lurraldeetatik etorritako artistak edota bertatik pasatakoak Asvinenean agur festan egon ziren, larunbatean. Hala eta guztiz ere, ez zeuden denak, ezinezkoa baita 17 urte hauetan bertatik pasatako guztiak elkartzea. Elkartu zirenek bai, horiek agur esan zioten arte eszenikoen sorkuntza guneari, «triste», baina irribarreia galdu gabe.

Anjel Andoño tolosarra ere han zen. Hasierako proiektu hartan zegoen. Bere «bigarren etxea» izateaz gain, «lehen» ere izan zela dio lehen hiru urte haietan: «Lagun batzuen artean jarri genuen hau martxan. Txotxongilo munduan ibiltzen ginen, eta tailer bat jartzeko lokal bat nahi genuen. Hementxe hasi ginen, eta gero, Asvinenean bihurtu zen».



2011n, esaterako, Hip Hop ikastaroa egin zuten Asvinenean. MAIER UGARTEMENDIA

Goitik behera ezagutzen ditut bertako hormak: «Gauza asko ikusi ditut hemen. Gehienak onak. Horrenbeste jende ibili den lekuan beti izaten da liskarren bat, baina hemengo laguntasunarekin eta elkartasunarekin geratzen naiz. Zerbait behar bazen eskatu eta hurrengo egunean hemen izaten zen», gogoratu du tolosarrak. «Oso zaila da horrelako gunek bat laguntzarik

gabe aurrera ateratzea», azpimarratu du. Pena ere sentitzen duela dio, «baina beste ziklo berri bat hasiko da, eta hori ere ederra da». Azken urte hauetan ez da Asvinenean bueltan ibili Anjel Andoño, baina beti egon da prest laguntzeko: «Gune berrian ere laguntza behar badute hor egongo naiz. Joan izan naizenetan beti eskatu didate hau edo hori egiteko, eta ni prest».



	ATARIKIDEAK	BESTEAK
BOTILA BAT	6 EURO	8 EURO
BI BOTILA	10 EURO	14 EURO

BOTILAK EROSTEKO 943 65 56 95 TELEFONORA DEITU
BEHAR DA BULEGORA JOAN BAINO LEHENAGO.



«Asvinenean uztearen pena ilusio bilakatzeko asmoa daukagu»

IRATI GONZALEZ
ASVINENEAKO KIDEA

Asier Imaz Aduna

Irati Gonzalez gonbidatuei ongietorria ematen egon zen larunbatean Asvinenean Agur festaren lehen uneetan. Eguerdira arte gune zaharra agurtu zuten. Arratsaldea, berriarekin lanean jarraitzeko aprobeztatu zuten.

Tristura eta poza sentitzeko moduan zaudete.

Sentimendu kontrajarriak. Agur festa da eta Asvinenean azken 17-18 urte hauetan pasa den pertsona guztien lana atzematen da. Xarma berezi hori dauka. Alde horretatik pena sentitzen duzu. Bestalde, hau ez da hemen gertatzen. Aurrera goaz, eta pena hori ilusio bilakatzeko asmoa daukagu.

Penari dagokionez, ibilbide laburra izango du, pareko pabiloira zoazte eta.

Hemengo (Asvineneako) jabeak saldu egin nahi zuela esan zigunean, zer egin behar genuen pentsatu genuen. Dena utzi edo aurrera jarraitu. Azken bide hori hartu genuen. Haurrei eta helduei klaseak ematen dizkiegu, proiektuak aurrera ateratzen dira... horrekin segi nahi genuen. Horretarako argi ikusten genuen espazio baten beharra. Erdigunerago mugitzea pentsatu genuen, garraio ikuspegitik egokiagoa zen leku batera. Adu-narekin, ordea, oso harreman ona daukagu. Bai udalarekin eta

bai herritarrekin oso gustura egon gara. Horrela, industriagune honetan bertan, pabiloi bat aurkitu genuen alokairuan, Asvinenean parean, eta hor jarraitzea erabaki dugu.

Nola doa egokitzea eta nolakoa da espazioa?

Azalera bikoitza izango du. Alde horretatik gustura gaude. Orain lan guztia gertatzen da egiteko. Pixkanaka ari gara. Zaila egiten ari zaigu aldaketa, baldintza teknikoak oso handiak direlako. Zirkuari begirako egokitzearen hasi nahi dugu, eta esan bezala hor eskakizun tekniko horiek sartzen dira: altuera, segurtasun neurriak, materiala bera...

Izen bera izango du berriak?

Ez. Horri buruz ere hitz egin dugu, eta zirkuari indarra ematea erabaki dugu. Horregatik, Zirkuala Elkarteak jarri diogu izena. Horrek ez du esan nahi zirkuarentzat bideratutako gune bat bakarrik izango denik. Hasieran horri eman nahi diogu egurra, baina beste arte eszenikoak ere pixkana sartzen joateko asmoa dugu.

Bost euroko bonua erosi, eta hamar kontsumitzeko aukera, Alegian

Udalak eta herriko hainbat saltokik elkarlanean sustatutako kanpaina irailaren 30era arte luzatuko dute

Erredakzioa Alegia

COVID-19aren krisialdiak Alegia-ko merkataritzan eragin duen kaltea leuntzeko helburuarekin, Alegiako Udalak eta herriko hainbat saltokik eta negoziok elkarlanean herrian kontsumoa sustatzeko bonu sistema jarri dute abian. «Herritarrek 5 euroko bonuak erosteko aukera izango dute eta bost euro horiekin, hamar kontsumitu ahal izango dituzte beraiek aukeratzen duten saltoki edo negozioan», azaldu dute udaletik. Ekimena irailaren 30era bitartean egongo dela martxan iragarri dute.

HERRITARREI EROSTOKO DEIA

Bonuak erosteko 18 urtetik gora izan beharko direla eta alegiarrek zein kanpokoek erosi ahal izango dituztela azaldu dute. Uztailean eta irailean kultur etxean erosi beharko dira 16:00etatik 20:00etarako ordutegian eta abuztuan kultur etxean 10:00etatik 13:00era. Bonuak erosterakoan zein saltokitan erabiltzeko den zehaztu beharko du kontsumitzaileak eta saltoki berean kontsumitzeko bi bonu erosi ahal izango dira gehienez. Ekimenarekin bat egin duten saltoki edo negozioek beraien lokalen sarreran bonuak bertan erabili daitezkeela adierazten duen kartel bat dute eta bonuak erosterakoan ere kontsultatu ahal izango da.

«Itxialdian zerbitzua eskainiz ahalegin berezia egin duten saltokiei eta egoerak hala behartuta itxita egon behar izan dutenei bultzadaxo bat emateko aukera eskaintzen du bonuen ekimenak», azaldu dute udaletik. «Aldi berean, herrian kontsumitzeak Alegia eta alegiarrei onura besterik ez diela ekartzen azpimarratu nahi da. Izan ere, zerbitzuz ondo hornituriko herri batek bertako jendea bertan kontsumitzera bultzatzen du eta horrek herriari bizia ematen dio. Udaletik eskerrak eman nahi zaizkie ekimenarekin bat egin duten merkatariei eta herritarrei bonuak erosteko gonbita luzatzen zaie».



Leyre Carrasco Tolosa

Denis Ruiz tolosarrak sona lortu zuen Manent euskaraz abesten zuen pop elektroniko taldearekin. 2008an sortu zen taldean abeslari aritzen zen eta gitarra ere jotzen zuen. 2010. urtean, *Barrutik* izeneko diskoaren ostean eman zioten bukaera ibilbideari. Musika mundua ez du erabat utzi hala ere, Txaston Dixie Band Tolosako jazz taldearen abeslaria da eta Fantastica izeneko proiektuarekin ere badabil. **Manent taldeak sona lortu zuen 2008 urte inguru hartan. Nola gogoratzen dituzu urte haiek?**

Oso esperientzia polita izan genuen, lagun onak egin genituen eta ederki pasa genuen.

'Barrutik' diskoa atera, eta Manent desagertu zen... bakoitza bere proiektuetan hasi zen behar bada?

Bai, bakoitza bere proiektuekin eta bere kasa hasi zen.

Nola gogoratzen duzu taldearen ibilbidea?

Ondo. Batera egin genuen ibilbidea oso polita eta aberasgarria izan zen, eta elkarrekin ederki pasa genuen.

Musikaren munduan urte asko eman dituzu. Gaur egun ere aritzen al zara?

Bai, gaur egun jazz talde batean nabil abesten, Txaston Dixie Band talde tolosarrean, hain justu. Noizean behin bolo batzuk egiten ditugu eta ederki pasatzen dugu. Gainera, beste disko bat ere grabatu dugu, gazteleraz. Hori bai, koronabirusaren eraginez oraindik ezin izan dugu argitaratu. Beraz, oraindik pixka bat itxaron beharko dugu.

Musikari afizioz, eta udaltzain ofizioz... Oso mundu desberdinak ezta?

Bai noski, baina begiratzen dio-

«Batera egindako ibilbidea oso polita eta aberasgarria izan zen»

DENIS RUIZ ABESLARIA, GITARRISTA ETA UDALTZAINA

Musikari afizioz eta udaltzain ofizioz. Manent taldeari agur esan, eta gaur egun Fantastica izeneko musika proiektuarekin martxan jarri da tolosarra.



POP ELEKTRONIKOA

Elektronika, pop-a eta euskara uztartu zituen Tolosako Manent taldeak 2008 inguru hartan. Carl Watermark ekoizlearen laguntza izan zuen taldeak eta musikari asko elkartu zituen; Denis Ruiz, Iñigo (Iñaki) Agirre, Juanjo Falcon, Fermin Etxeberria Aranburu, Iñigo Asensio eta Tadeo Urkola. Bi disko kaleratu zituzten *Txuribeltzeko amodioa* 2008an, eta *Barrutik* bi urte beranduago. RUN DOWN ENTERTAINMENT

zun ikuspegiaren arabera erlazioa dutela ikusiko duzu.

Zein musika entzuten duzu gaur egun?

Gaur egun indie pop-a edo indie rock-a bezalako musika dezente entzuten dut. Orain modan dagoen generoa da eta egia esan asko gustatzen zait.

Nola ikusten duzu musika panorama, kultura mundua oro har?

Kultur munduan eskaintza handia dagoela esango nuke, eta eskaintza horren barruan musika kategoria asko dago; musika oso ona, baina baita txarra ere. Nire ustez, kulturalki beherakada txiki bat egin duela musikak ikusten da, eta komertzial aldetik musika produktu bezala gehiago saltzen dela, adibidez gaur egun *reality show*-ak eta abarreko horiekin.

Beherakada kulturala aipatu duzu. Non sumatzen duzu adibidez?

Gaur egun musikariek aurrera ateratzeko edo beraien lanak aurrera ateratzeko egin behar dutenean, hau da, autoekoizpenak edo horrelakoetan. Beraien aldetik egin behar dute lan guztia, geroz eta laguntza gutxiago baitago kulturari jarri dioten eragozpenekin. Gaur egun ez zaio garrantzi handia ematen kulturari, ez musika arloan, ez beste edozein arloetan ere.

Fantastica proiektuarekin ere ari zara. Zer helburu du?

Helburua betikoa da. Musika egin, aurkeztu eta nahi duenak entzun eta goza dezala.

Zer da letren atzean gorde edo kontatzen duzuen?

Denetik, Fantastica-ko letrek gehien bat giza egoeraz hitz egiten dute. Bertan feminismo kuttu handi bat dago eta gaur egungo arazoak jorratzen ditu. Nahiko humanista da.

Imanol Garcia Landa | Ibarra

Eskarmentua badu dagoeneko Josu Ibarbiak (Ibarra, 1995) futboleko, 2. B mailako hainbat taldetan aritu baita. Datorren denboraldiari begira, goiko postuetara begira dagoen talde baten eskaintza jasotzeko zain dago.

Azken denboraldia Arenas Club taldean egin duzu. Zer moduz joan da?

Hasieran asko kostatu zitzaigun, pixkana hobetzen joan ginen eta hobeto bukatu genuen. Jaitsierako postuetan geunden, baina azkeneko hamar partidak falta zitzaizkigun sailkapeneko erdialdetik behera zeuden taldeen aurka, eta mantentzeko esperantzaren bagenuen. Azkenean erabaki zen jaitsierarik ez zela izango eta 2. B mailan jarraituko du taldeak. Hori zen lehenengo helburua. Bestalde, jaitsierarik ez denez izan, eta Hirugarren Mailatik igoerak izango direnez, ehun talde izango dira 2. B mailan. Berriro egituratuko da, eta ezberdina izango da.

Eta zuretzako pertsonalki nolakoa izan da?

Hasieran kostatu egin zitzaidan, nahiko berandu hasi bainintzen taldearekin, baina gero entrenatzaileak konfiantza eman zidan, eta egia esan, oso gustura bukatu dut.

Orain zein da zure egoera?

Arenas Club taldeak kontratu luzapena egin nahi izan zidan, baina nik itxarotea erabaki dut. Aurtengo pandemiaren kontuarekin guztia ezberdina denez, igoera faseak eta jokatzeko ari dira, eta itxaroten ari naiz ea eskaintzarik jasotzen dudan.

Beraz, talde indartsuago baten eskaintzaren zain zaude.

Azken helburua hori da, ea eskaintza hobea egiten didan talderik badagoen. Egia esan, oso irekita nago, eta ikusi egin behar da zein diren eskaintzen dituzten baldintzak.

«Oso zabalik ikusten dut fitxaketan merkatua»

JOSU IBARBIA FUTBOLARIA

Oraingo talderik ez du Josu Ibarbiak, azken denboraldian jokatu duen Arenas Club taldearen eskaintza izan arren; beste aukeraren bat iristen zaion ikusi nahi du, eta bitartean bere kabuz ari da entrenatzen.

Ez bada eskaintzarik iristen, Arenas Clubekoa hor dago, ezta?

Ba, ez dakit, hori hitz egin behar ko litzateke, baina momentuz ez dut hori buruan.

Bitartean, besteak beste, zure kasa entrenatzen jarraitzen duzu. Nola eramaten da zain egotea?

Egia esan, nahiko ondo ari naiz. Talde batekin entrenatzen hasiteko ere gogoz nago. Azkenean hori errazago eramaten da. Arenaseko prestatzaile fisikoak lehenengo hilabeteetan planifikazioa egin zigun, hori bete genuen eta gustura aritu ginen. Gero, ekainetik aurrera nire kabuz nabil, lagun batek laguntzen dit entrenamenduak prestatzen, eta oso gustura nabil berarekin.

Orokorrean nola dago fitxaketan merkatua?

Oso zabalik ikusten dut. Ez dakit zer gertatuko den aurtengo. Talde gehiago izango dira, baina ez dakit zer gertatuko den; dena irekita dago eta taldeek ere beren jokariak berriro egin beharko dituzte, batzuk joan egingo direlako, eta fitxaketak egin beharko dituzte.

Dagoeneko ibilbide bat egin duzu 2. B mailan. Nolakoa izan da orain artekoa?



I.G.L.

Jubeniletan Realetik utzita Real Unionera joan nintzen, eta nahiz eta asko ez jokatu, helburuak lortu genituen, igoera faserako sailkatu ginelako, eta Federazio Kopa irabazi genuen. Gero bi urtez Sansen jokatu nuen, eta gus-

tura egon nintzen. Lehenengo urtean asko jokatu nuen eta bigarrenengoan ez hainbeste, baina aberasgarriak izan ziren bi urteak niretzat. Aldaketa bat egin nahi nuen eta Melillara joan nintzen. Askok ez jokatu arren, arlo

pertsonalean asko ikasi nuen, eta esperientzia moduan asko balio izan dit. Amorebietan egon nintzen aurreko denboraldian, eta inflexio puntu bat izan zen niretzat, benetan futbola zer den ikusi nuelako: ez ginen oso ondo hasi, baina gero oso ondo bukatu genuen eta horrek moralki asko lagundu zidan. Eta aurtengo denboraldian oso gustura aritu naiz Arenasen.

Melillako egonaldia izan zen bereziena, agian?

Maila pertsonalean oso esperientzia berezia izan zen, eta asko balio izan dit. Beharra nuen pixka bat aldatu eta gauzak nire kabuz egiteko; etxetik kanpora joan, bakarrik bizi, gauzak bakarrik eginez, eta horrek asko lagundu zidan.

Aurrera begira zer helburu duzu?

Bigarren Mailara igotzeko helburua duen talderen batean egotea. Hori lortzen saiatuko gara eta bestela ikusiko dugu. Gero, Bigarren Mailara igotzea lortuz gero, niretzako esperientzia ikaragarria izango litzateke. Horretan saiatuko gara eta ikusiko dugu ea lortzen dugun.

Eta nola ikusten duzu bizi dugun egoera bereziak eragin dezakeela futboleko? Lehen Mailako partidak ikuslerik gabe jokatu dira, adibidez.

Ez dakit nola izango den, hainbat gauza irakurri baititut. Hasiera batean esaten zen azarora arte-edo jendea ez zela sartuko estadioetara partidak ikustera, baina ez dakit zer neurri hartuko diren azkenean. Dena airean dago, eta hasi arte ez dut uste jakingo dugunik.

Alde handia izango da zaleekin aldezalari gabe jokatzearren artean.

Bai, guretzat garrantzitsua da zaleak harmailetan daudela jokatzeko da, horrek motibatzen gaitu. Baina ikusi egin beharko dugu zer gertatzen den.

Hilberriak eta urteurrenak



Demetria Sarasola Roteta

(Pedro Adurriagaren alarguna)

- Goian Bego -

*Eskerrak ematen dizkiogu
une estu hauetan
gure ondoan egon eta
sentitu ditugun guztiei.*

Adurriaga- Sarasola
Sendiak

LEABURU - TXARAMAN, 2020ko uztailaren 21ean



Ximon Arruabarrena Aizpurua

2020ko uztailaren 19an hil zen 93 urterekin.

*Gizon on bezain leiala
aurpegian beti irrifarre itzala.
Langile on bezain fina
kontutarako atsegina.
Emandako guztiagatik
milesker aitona!!*

ZURE BILOBAK ETA BIRLOBAK:

Unai eta Eider, Urki, Oihana eta Albano, Xumai, Izarne eta Eneko, Leire eta Joseba, Xuar, Laia, Henar, Arai.

ZALDIBIAN, 2020ko uztailaren 21ean

ataria jarrita
Urola Kosta eta
Goierriko
Hitzeran DOAN

ESKELAK

ataria@ataria.eus •

Tel.: 943-65 56 95

Astelehenerik asteazkenera

18:30ak arte hartzen ditugu •

Ostegunetan 11:30ak arte

hartzen ditugu

Imanol Garcia Landa

ETE ligako bigarren estropadan bigarren bandera lortu du Tolosaldea traineruak. Oraingoan Getariako uretan izan da lorpena, eta 700. Errenteriako Udala eraman duten bandera. «Lehenengo luzean oso estu joan zen estropada, ziaboga arte denak ia batera iritsi baikin. Ez genuen guztiz gure arraunketa hartu baina gustura joan ginen», azaldu du Malen Oiarzabal arraunlariak. «Gero, bueltan, arraunketa finkatu genuen, gure dinamikan sartu ginen, burua hotz mantentzen saiatuz, eta, egia esan, gozatu egin genuen, abantaila polit bat ateratzea lortuz eta oso gustura amaitu genuen».

Aurreko astean Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten, itsasoraino egindako estropadan, eta gustura bukatu zuten arraunlariak, laugarren postua lortuz eta Eusko Tren ligako traineru baten aurretik, eta beste baten ia denbora berdinean amaituz. «Segurtasun puntu handi bat eman zigun itsasoko estropadei begira, gure buruarekiko lasaitasun bat ere bai, eta jakitea gauzak ondo eta zentzuz egiten bagenituen, aurrean ibiltzeko aukera izango genuela», esan du Oiarzabalek.

Entrenatzaileak zoriondu egin zuten egindako estropadarengatik, eta behin eta berriz esaten

Bigarrena ere bai

Tolosaldea traineruak 700. Errenteriako Udala bandera irabazi du Getariako uretan; garaipenarekin ETE ligako sailkapenaren buru jarraitzen du eskualdeko ontziak



Tolosaldea trainerua, aurtengo bigarren bandera ospatzen. GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA/UROLAKOSTAKO HITZA

diena esan zuten orduan ere, Oiarzabalek azaldu duenez: «Gugan sinistu behar dugula, eta gu garaile lehenengoak gure burua aurrean ikusi behar dugunak, banderengatik borrokatzen. Hortxe gaudela, baina lanean jarraitu behar dugula, hemen ez duelako inork ezer oparitzen. Apar gaine-

an egon behar dugula, baina oinak beti lurrean izanik».

Hamar segundoko tartea atera zuten bigarren eta hirugarren egin zuten San Juan eta Deustu ontziari. Lehenengo bandera lau ehunenekoengatik irabazi zuten. «Hori ere irabazi genuen, baina ez da sentsazio bera. Beste

segurtasun batekin irabazi dugu bigarrena, eta poz handiz hartu dugu, nolabait orain arte egindako lanaren fruitua dela ikusten dugulako», zehaztu du Tolosaldea ontziko arraunlariak.

Linean jokaturako lehen bandera irabazi dute, horrenbestez, Tolosaldea ontzikoek. Aurten

ETE LIGAKO SAILKAPENA

Tolosaldea	18 puntu
San Juan	14 p.
Zumaia	14 p.
Ondarroa	12 p.
Deusto	11 p.
Hibaika	8 p.
Lutxana	6 p.
Isuntza	5 p.
Lapurdi	2 p.

irabazitako bestea eta aurreko bi urteetan irabazitako bandera bana erlojuaren aurka izan baitziren. Gipuzkoako Txapelketa-ko estropadan jasotako esperientzia horrek lagundu zuten besteekin parez pare jarrita arraun egiteko segurtasuna izaten. «Linean irabaztea ere bada segurtasun seinale, eta traineru gaztea izan arren, eskarmentua hartzen ari garela erakusten du».

Jokatutako bi jardunaldiak irabazita, sailkapeneko lehen postuan daude Tolosaldea trainerukoak. Hurrengo bi estropadak asteburu honetan izango dira. Larunbatean Zumaia II. Ikurrina jokatu da, Getarian, eta igandean Pasaia izango da lehia. «Hasi besterik ez da egin liga, eta ez da nola hasten den baizik eta nola bukatzen den», esan du Oiarzabalek. «Estropadaz estropada joan behar dugu, eta zerotik hasi behar dugu jardunaldi bakoitza».

Jokin Altunak 48 ordutan bi garaipen lortu ditu

Imazekin batera Ezkurdia-Aranguren bikoteari zein Artola-Rezusta bikoteari irabazi die, sailkapenean goraino igoz

Erredakzioa

Asteburu borobila izan da Jokin Altunarentzat CaixaBank Masters torneoan, jokatu dituen bi partidak irabazi baititu. Bere aldetik, Iñaki Artola eta Erik Jaka garaipenik gabe geratu dira. Azken honek, larunbatean, herritarren aurrean jokatu zuen.

Jokin Altunak lehen eta laugarren jardunaldietako partidak jokatu zituen asteburuan, Imaz atzean zuela. Ostiralean, Ezkurdia-Aranguren hartu zituzten, eta atzeratutako partida hori aurrean irabazi zuten: 22-8. Igandean, laugarren jardunaldiko partidari, ia gauza bera egin zuten txapelketako bikote sendoen izaten ari den Iñaki Artola eta

Beñat Rezustarekin: 22-14. Bi garaipen horiekin, sailkapen nagusiko lehen postuan jarri dira amezketarra eta oiartzuarra, beste bi bikoterekin berdinduta.

Iñaki Artolak eta Beñat Rezustak partida galdu arren, 3 garaipenekin jarraitzen dute sailkapen buru. Garaipen kopuru berekin daude beste bi bikote: Ezkurdia-Aranguren eta Bengoetxea VI-Martija.

Jakak ezin izan zuten etxeko partida irabazi larunbatean. Lizartzarrak herritarren aurrean jokatu zuen, baina protagonista Oinatz Bengoetxea leitzarria izan zen. Lesiotik bueltan, torneoko lehen garaipena lortu zuen Bengoetxea VI.ak. Amaieran, markagailuak 22-18 erakutsi zuen.

Jaka-Albisuk sailkapen nagusian goiko postuetan jarraitzen dute, bi garaipenekin.

5. JARDUNALDIA

Iñaki Artola izango da bosgarren jardunaldia zabalduko duen eskualdeko ordezkaria. Ostiralean, Medranon, Elezkano II-Aretxabaleta izango dituzte aurkari Artola-Rezustak. 21:00etan hasiko da jaialdia. Jokin Altuna eta Ander Imazek larunbatean jokatu dute Iruñeko Labrit pilotalekuan, 22:15etik aurrera; Olaizola I-Zabaleta izango dituzte aurkari. Erik Jakak eta Jon Ander Albisuk igandean jokatu dute Zaratzen, 17:00etatik aurrera, eta aurkariak Urrutikoetxea-Irribarria izango dira.

ETB Joxean Tolosa berriz hartzera behartuta

Erredakzioa Amezketa

Euskadiko epaitegi gorenak Euskal Telebista SA-ren aurkako epaia eman duela argitaratu du *Noticias de Gipuzkoa* agerkariak. Epai horren arabera, ETB-k Joxean Tolosa berrir hartu behar du, «lehen zituen baldintza berdinetan». Horrez gain, denbora honetan jaso ez duen soldata ordaindu behar dio amezketarrari telebistak.

1995an hasi zen pilota komentarista lanetan Joxean Tolosa, ETB-n. Joan den irailean kalera-tua izan zen. Pilotari ohiak telebistaren aurkako salaketa jartzea erabaki zuten, «bidegabeko kaleratzeagatik» eta bere ustez jaso beharrekoa baino diru gutxiago jasotzeagatik. Donostiako epaitegiak arrazoia eman zion zen-

tzu batean, izan ere, diru gehiago ordaintzera behartu zuen ETB. Kaleratzea, ordea, ez zuen bidegabetzat hartu. Tolosak erabakia errekurritu zuen.

Euskadiko epaitegi nagusiak arrazoia eman dio amezketarrari. Beti ere *Noticias de Gipuzkoa*-n ateratako albistearen arabera, «kaleratzea baliogabe geratzean, ETB-k ez du kalte ordainik ordaindu behar dio, bakar bakarrik, Joxean Tolosa berrir hartu behar du». Epaitegiak kaleratutako sententziaren ardatzean adinagatik diskriminatu izana dago: «Adina faktore erabakigarria izan zen, bere ordezkoko beste pilotari ezagun bat jarritz, baina gazteagoa. ETB-ren helburua lantaldea gaztetzea izan da. Horregatik, kaleratzea bidegabekoa da, adinagatik izan zelako».



ASTEARTEA, 2020KO UZTAILAK 21
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezere arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEARTEA 21

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Sahararen aldeko elkartasun karabana, plazan, 17:00etan. Saha-rara bidaltzeko materiala bilduko dute, batez ere, hezkuntza eta osasun materiala.

Ibarra. Herritarren boluntario sarea berrantolatze biler, plazako aterpean, 19:00etan. Herritarrak eta eragileak gonbidatu dituzte.

ATARIA IRRATIA

Egun osoan. Euskal musika.

28 KANALA

11:00. Elkarriketap (Tor magoa)
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
13:30. Gaurkoan Tolosaldeko
16:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
17:00. Adinberri
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Leihotik Begira (Alegia)
22:30. Zer jan

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunkoa. Edurne Mujika Martinez, Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.

TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro ezegonkorra bai-na beroa. Zeru nahiko argi agertuko da egunaren lehen orduetan, nahiz eta, hodei batzuk ikusiko ditugun. Egurditik aurrera bero-hodeiak garatzen hasiko dira eta iluntze alderako ekaitzen bat edo beste izango da. Haizeak iparraldetik joko du, baina tenperatura beroa izango da, maximoa 29-30 gradu artean kokatuz.

Bihar. Giro nahasiak eta be-roak jarraipena izango du. Egunsentian ekaitz hondarren bat geratuko da. Ondoren giro lasaigoa izango dugu hodeiak eta ostarteekin, nahiz eta ez den baztertu behar arratsalde partean zaparrada isolaturen bat botatzea. Haizeak ipar/ipar-mendebaldetik jotzen jarraituko du eta tenperatura maximoak 27-29 graduan joko du goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan- en eta iritzien erantzukizunik.

‘Tolosaldeko Ataria’-ren jarraitzaile direnek Tuterako Aire de Bardenas hotelean bi eguneko egonaldia eskuratu dezakete; etzi, uztailaren 23a, izango da zozketan parte hartzeko azken eguna.

Egoera goxatzeko saria

Erredakzioa

Kasturte amaiera iristearekin batera, TOLOSALDEKO ATARIAK animoak eta esker-rak eman nahi dizkie harpidedun eta jarraitzaile guztiei, eta horregatik, zozketa berezia jarri du martxan. Ezohiko garaia bizitzea egokitu zaigun honetan, sari bikaina lortzeko aukera izango dute parte hartzen dutenek, egonaldi bat Tuterako Aire de Bardenas hotelean, hain justu.

TOLOSALDEKO ATARIA-ren jarraitzaile diren guztiek parte hartu ahaliko dute zozketan, eta horretarako azken eguna, etzi, osteguna izango da, 11:00etan. Atariki-de direnek euren datuak jartzearekin batera, bazkide zenbakia sartu beharko dute, eta ez direnek, gune horretan, 2020 idatzi beharko dute. Saridunaren izena parte hartzeko epea amaitu bezain pronto emango du jakitera ATARIAK. Saria bi pertsonarentzat bi gaueko egonaldia izango da, Aire de Bardenas hoteleko suite batean, patio pribatua eta kanpoko bainuontziarekin.



Tuterako Aire de Bardenas hotelean asteburu ederra eskura daiteke. ATARIA



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA

2 ETA 3 LOGELA, GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK



CONSTRUCCIONES
ABURUZA, S.L.

Informazio guztia:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo

607 445 484
943 69 02 97